

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Justo Astui Imatz

*Bermeo
Bizkaia (1922)*

Aurkibidea



Biografia



1922an jaio zen Talakoetxe kolean. Gurasoak baserritarrak zituen: ama San Pelaiokoa eta aita Almikakoa. Amak portuko neskabila legez egiten zuen lan eta aita baxurako makinista zen. 5 senidetatik laugarrena da. Jaio eta segidan Santanderrera joan ziren bizitzera aita eta osabak baporea zutelako han. Errepublikak irten zuenean, berak 10 urte zituela, herrira bueltatu ziren, Talakoetxera. 13 urterekin portuko tailer batean hasi zen lanean asteen 2 pezeta irabaziz; bertan zebilela, ELA sindikatuan zegoen eta gerra sasoiaren karneta erre zioten. Hiru urte eta gero, gerra amaituta, "Edurne" ontzian hasi zen sugin (fogonero) eta ostean, "Jauna emon egizu"n. Emaztearen familiaren "San Juan de la Cruz" motordun baporean hasi zen makinista bezala patroia postura helduz. Itsasoarekin lotuta egon da betidanik, 6 titulu ezberdin ditu. Dakarrera 3 bider joandakoa da, lehenengo aldiz 1957-58ko kanpainan joan zen eta 6 hilabete igaro zituzten bertan. Zerbitzu militarrean ere marinar egon zen, Espainiako armadako itsasontzi handiengatik "Crucero Canarias"en. Hiru seme-alabaren aita da. BRM-009/010 grabazioetan bere koinatu [Rikardo Garcia Benguri](#)arekin batera agertzen da gerrari buruz berbetan. BRM-011/012 grabazioetan, oster, arrantzako bizimoduari buruz dihardu. Arrantzale familiakoa, bermeotarra eta traina-konpontzailea zen Juanita Etxebarriarekin ezkondu zen.

Zintak

BRM-009

- **Proiektua:** Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-06-30
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

BRM-010

- **Proiektua:** Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-06-30
- **Iraupena:** 37 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

BRM-011

- **Proiektua:** Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-07-01
- **Iraupena:** 51 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

BRM-012

- **Proiektua:** Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-07-01
- **Iraupena:** 41 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Aitaren sasoitik beranerako aldaketak

- **Erref:** BRM-009/003
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:02:02. **Bukatu:** 00:04:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Bere aitaren sasoian egun bat edo bi baino ez zuten egiten itsasoan, eta Asturiastik ikatzarekin ibiltzen ziren baporeak. Beraiek, ostera, luzaroan. Justo hiru bider egon da Dakarren (Senegal). Arrantzarako erabiltzen zituzten aparailuak aipatzen ditu: traina (sarea) eta amuak.</p>

2. Behegainean lotan

- **Erref:** BRM-009/004
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:04:16. **Bukatu:** 00:05:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Bapora bakoitzean 15 lagun joaten ziren. Behegainean egiten zuten lo, alde batetik bestera balantzaka.

3. Zauritutako laguna

- **Erref:** BRM-009/014
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 00:31:46. **Bukatu:** 00:36:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Justo frontera bere lagun batekin batera joan zen, Julianegaz. Hildakoak baino ez ziren ikusten, errepublikanoak zein faxistak berezitu barik. Julian eta bera Sierra de Cabalen galdu ziren; eta, ikusi zuen hurrengoan, ez zuen ezagutu: ohatilan (kamillan) zegoen zaurituta.

4. Bata bestea hiltzen

- **Erref:** BRM-009/015
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:36:20. **Bukatu:** 00:39:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Borroka gero eta gogorragoa zen. Kataluniatik eta Errusiatik etorritako armamentua zegoen. Batak bestea hiltzen zuen, bestea nor zen jakin barik; ez zegoen beste egitekorik. Bera ere azkenean zauritu egin zuten.

5. Armadako 'Crucero Canarias'en

- **Erref:** BRM-009/023
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:57:55. **Bukatu:** 01:00:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Justo 25 hilabetez egon zen Espainiako armadako itsasontzi handiengan Crucero Canariasen. Marinakoek izaten zituzten eginbeharrak azaltzen ditu. Bermeotar gehienak joaten ziren marinara. Crucero Canariasen 1.200 gizon zeuden.</p>

6. Sollubeko borroka

- **Erref:** BRM-009/025
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 01:00:32. **Bukatu:** 01:03:09

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Bermeon herrian bertan ez zen borrokarik egon. Italiarrak egon ziren Bermeon, eta inguruan gorriak. Solluben egon zen borroka gogorra. Portura kanoikada asko bota zituzten.

7. 180 gazte bermeotar hil ziren gerran

- **Erref:** BRM-010/003
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:03:24. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Bermeon 180 gazte inguru hil ziren gerran. Asko boluntarioak, errepublikaren alde borrokatu zutenak.

8. Soldadu italiarraren ogerlekoa amari eroan

- **Erref:** BRM-010/006
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:08:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

<p>Faxistak Bermeon sartuz geroztik 'Euzkadiko diruak' ez zuen ezer balio. Janari eske joan behar izaten zuten baserrietara. Behin, Justori soldadu italiar batek ogerlekoa eman zion dendan esne kondentsatua erosteko. Justok dirua hartu eta amari eraman zion.</p>

9. 112 bermeotar ito 1912ko galarrenan

- **Erref:** BRM-010/010
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:10:04. **Bukatu:** 00:12:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

1912an 112 bermeotar ito ziren galarrena baten eraginez. Banaka batzuk salbatu ziren. Espainiako Erregea etorri zen hiletatara. Orduan 'uriko ume' (hospiziokoak) asko ekarri zen Bermeora.

10. ELAko karneta erre faxistak sartu zirenean

- **Erref:** BRM-010/012
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:13:03. **Bukatu:** 00:15:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>Errepublika denboran sarri izaten ziren mitinak. "Guardia asaltoak" etortzen ziren halakoetan; behin neska bat zauritu zuten tiroz. Manifestazioak ere ugari, sindikatuena eta, UGTkoak esaterako. Kanpoko jendea gehienbat. CNT ere bazen. ELA ere bai. Justok sindikatu honen karneta zuen 14 urterekin. Faxistak sartu zirenean erre egin zuen. Ez zuen kuotarik pagatzen.</p>

11. 14 urterekin tailerrean lanean

- **Erref:** BRM-010/013
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:15:35. **Bukatu:** 00:17:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Justo portu ondoko tailer batean ibili zen lanean, 14 urterekin hasita. Asteaz bi pezeta irabazten zituen. Behin ugazabaren andreak eraman zuen berarekin lanera eta zazpi pezeta ordaindu zizkion.</p>

12. Batzokia eta UGT eta errepublikanoen egoitzak Bermeon

- **Erref:** BRM-010/015
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:18:13. **Bukatu:** 00:20:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:

Batzokia zegoen Bermeon. Komunistek edo UGTkoek egoitza izan ei zuten txalet batean, Mundakara bidean. Kikunbera Etxearen jabea Arzadun Jenerala zen. Karlistak baziren baina ez zuten indarrik. Errepublikanoen egoitza Lamerako kafetegi batean zegoen. "Unión de Izquierda Republicana"koak ziren.

13. Domeketan bost xentimoko paga

- **Erref:** BRM-010/016
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:20:06. **Bukatu:** 00:21:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Ez zen istilurik sortzen errepublikanoekin-eta erlijio kontuengatik. Domeketan bost xentimoko paga izaten zuten.

14. Fraidea idi-zilaz ikasleak jipoitzen

- **Erref:** BRM-010/018
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:21:35. **Bukatu:** 00:23:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

Fraideetan ibili zen Justo eskolan. Fraideak sotanaren kordioaz jotzen zituen ikasleak. Baserritar batek ekarritako idi-zilaz ere bai, amorru biziz, gainera. Behin sekulako zapindua eman zion ikasle bati idi-zila ezkutatzeagatik.

15. Hermanoetatik Fraideetara pezeta bat merkeago zelako

- **Erref:** BRM-010/020
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:25:09. **Bukatu:** 00:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Santanderren ('Sananderen') bizi izan zen Justo familiarekin. Itzuli zirenean Hermanoetan sartu ziren Justo eta anaia; bost pezeta ordaintzen zuen bakoitzak hilean. Amak atera eta fraideetara eraman zituen han lau pezeta zelako.

16. Alfonso XIII.a ikusten zuen etxe aurretik pasatzen

- **Erref:** BRM-010/022
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:27:19. **Bukatu:** 00:28:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1923-1931: Primo de Rivera

Laburpena:

Alfonso XIII.a Santanderrera joaten zen beraneatzera. Justok beren etxe ondotik pasatzen ikusten zuen zalgurdian. Jaio eta berehala joan zen Santanderrera bizitzera.

17. 13 urterekin eskola utzi, dena ikasita

- **Erref:** BRM-010/024
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:28:44. **Bukatu:** 00:30:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Eskolan denetik ikasten zuten liburu bakar batetik, entziklopediatik. Aritmetika, Geografia, Gramatika... Dena ikasi zuela, eta bidali egin zuten eskolatik. 13 urterekin tailerrera.</p>

18. Jostailuak eurek egiten zituzten umetan

- **Erref:** BRM-010/025
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:30:10. **Bukatu:** 00:33:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Eurek egiten zituzten jostailuak: latorri zati batez batela; barrika bati kendutako uztaiak jolas; 'birinbolie' izenekoak... Eta madariak eta sagarrak osten zituzten. Beste jolas batzuk: neskekin 'bale-baleka', 'txorro-morroka', pilotxuen (txirikilan).

19. Bapore baten sugin ('fogonero') soldadutzara joan arte

- **Erref:** BRM-011/001
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Flota
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

<p>13 urterekin hasi zen tailerrean lanean. Hiru urte egin zituen. Gero, gerra amaitu zenean, itsasoan hasi zen, sugin ("fogonero"). Edurne zen lehen baporearen izena, eta Jauna emon egizu bigarrenarena. Sua lurrin-ontzietan zaintzea zen suginaren beharra.</p>

20. Bokarta harrapatzen

- **Erref:** BRM-011/002
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:01:44. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

Bokarta harrapatzen ibiltzen ziren kostatik hurbil, egunez. Gero hasi ziren 'ardoran' arrantzan, gauez. 14-15 lagun ziren, baina txikia zen baporea. Beren 'San Juan de la Cruz' baporearen argazkia.

21. Makinista lehenengo, patroï gero

- **Erref:** BRM-011/004
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:04:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Flota
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

Soldadutzatik etorri eta makinista azterketa egin zuen ("fogonero habilitado"). Hiru sozioren arten barku berria egin zuten. Hiru urte egin zituen makinista eta gero beste zazpi patroï 'San Juan de la Cruz' baporean.

22. Barku berriari motorra muntatzen Zumaian

- **Erref:** BRM-011/005
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:04:47. **Bukatu:** 00:06:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

Gero barku handiagoa egin zuten Zumaian. Hilabete egin zuen haren gasoliozko motorra muntatzen Unanue tailerrean. Bermeon ere muntatzen ziren motorrak.

23. Bokarta neguan harrapatu zuten urte hura

- **Erref:** BRM-011/007
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:08:03. **Bukatu:** 00:10:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Sardinetan eta txitxarrota ibili ziren atunetan baino lehenago. Urtarrilean hasi ziren urte hartan bokarta (antxoa) harrapatzen. Orain udaberrira arte ez dago bokartarik. Bokarta harrapatzeko trainak erabiltzen zituzten. Gero atunetan 'pikien', ehizan, kanaberaz.

24. Dakarreko ibilera neketsuak

- **Erref:** BRM-011/008
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:10:02. **Bukatu:** 00:12:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Dakarrera (Senegal) joan ziren 57-58 urtean lehenengo aldiz. Bermeotarrak ia guztiak, baina baziren Lekeitioko eta Elantxobekoak ere. Sei hilabete egin zuten. Lehertuta amaitu zuten; behar asko. Atuna (zimarroia) harrapatu, garbitu, trainak eskegi... Gero Kanarietara eraman behar izaten zuten arraina.</p>

25. Ikerketa espedizioa Dakarretik arrain-lekuen bila

- **Erref:** BRM-011/009
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:12:07. **Bukatu:** 00:14:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna

Laburpena:

Ikerketa espedizioa antolatu zuten, bost barku hegorantz, Sierra Leonara arte, eta beste bost iparralderantz. Gora zihoazela, barku batek hondoa jo zuen eta hor amaitu zen espedizioa. Gero, hasierako martxari jarraitu zioten.

26. Sei hilabeteko hiru kanpaina Dakarren

- **Erref:** BRM-011/010
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:14:11. **Bukatu:** 00:15:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna

Laburpena:

Gutunez komunikatzen ziren hemengoekin. Hurrengo urteetan ere joan ziren. Urrian joan eta Gabonak ere han igarotzen zituzten. Udaberrian itzuli eta bokartatan jarduten zuten hemen.

27. Irabaziak zelan banatzen ziren tripulazioaren artean

- **Erref:** BRM-011/011
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:15:40. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

Lehenengo urtean 23.000 pezeta atera zuen bakoitzak sei hilabete eginda. Irabazien erdia armadorearentzat izaten zen eta beste erdia tripulazioarentzat. Tripulanteak berdin kobratzen zuten. Gero armadoreak plus bat ematen zien makinistari eta patroiarari. Patroiarari laurena ordaintzen zitzaion.

28. Lo egiteko oso leku txikia barkuan

- **Erref:** BRM-011/012
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:19:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:

Patroiak, makinistak eta marinelek osatzen zuten tripulazioa. Hamabost lagunek sotoan egiten zuten lo, oso leku txikian. Komuna non zegoen.

29. Lekeitiarrekin ondo konpontzen ziren, giputzekin eta santadertarrekin txarto

- **Erref:** BRM-011/014
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:20:38. **Bukatu:** 00:22:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

<p>Bermeotarrak ondo konpontzen ziren Lekeitiarrekin. Ez hain ondo ondarroarrekin. Eta gaizki "goiarrekin", giputzekin. Gezurtiak ei ziren. Eta santandertarrekin,'montañesekin', are okerrago. Faltsuak ei ziren.</p>

30. 'Crucero Canarias' en egin zuen soldadutza

- **Erref:** BRM-011/016
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:23:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzako argazkia (1942). Crucero Canarias en egon zen.</p>

31. Neskatilek gizonen erdia kobratzen zuten

- **Erref:** BRM-011/017
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:23:37. **Bukatu:** 00:25:30

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

50 kiloko sardina otzarak eramaten zituzten andreek buruan baporetik kofradiara. Gero hasi ziren esku-gurdiak. Neskatilek Marea erdi ('marixerdi') kobratzen zuten, arrantzaleen erdia, alegia. Jornalari 'marixie' esaten zioten.

32. Arrain-enkantea zelan egiten zen

- **Erref:** BRM-011/018
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:25:30. **Bukatu:** 00:26:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Kofradian egiten zen arrain-enkantea. Gizon batek prezioa kantatzen zuen goitik behera eta erosleak botoi bati ematen zion komeni zitzaionean.

33. Ehunka barku deseginda eta hondoratuta Bermeo aurreko itsasoan

- **Erref:** BRM-011/019
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:26:52. **Bukatu:** 00:28:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoarekiko jarrera

Laburpena:

136 bapore egon ziren sasoi batean Bermeon. Portua zeharo beteta egoten zen. Legatz-zaleak asko. Eta handiagoak ere baziren. Gero, kentzeko orduan ehunka bapore desegin ziren: motorra eta beste elementu batzuk kendu, itsaso zabalera eraman eta hondoratu egiten zituzten. Ehunka ei daude hondoan. Saldu ere asko egin ziren.

34. Bermeon baxurako arrantza ia bakarrik

- **Erref:** BRM-011/020
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:28:40. **Bukatu:** 00:29:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:

Bermeon baxurako ontziak egon dira beti. Sasoi baten arrasteko banaka batzuk ere bai, baina gero Ondarroara joan ziren. Koadroko beren ontziak 24 metro eta 100 zaldi zituen. Hurrengo izan zutenak 200. Biak Zumaian eginikoak.

35. Garbitasun gutxi eta erosotasunik ez ontzian

- **Erref:** BRM-011/021
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:29:54. **Bukatu:** 00:32:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko garbitasuna

Laburpena:

<p>Brusaz (eskoba latza, zepilloa) garbitzen zen ontzia. Gero ura baldeka bota. Norberaren garbitasuna, berriz, zer zenik ere ez zekiten ia. Arroparik ez zuten aldatzen hogeia egunean atunetan zebiltzanean. Arropa eta guzti lo. Ez kamainarik, ez koltxoirik, ez mantarik... Oholaren gainean lo, itsasoko jaka, 'jakenarrue' almohadatzat ipinita. Geroagoko ontzietan bazen erosotasun gehiago.</p>

36. Mahoizko arropak eta txapela, marinelen uniformeak

- **Erref:** BRM-011/022
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:32:25. **Bukatu:** 00:33:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Jende guztiak mahoizko arropak jantzen zituen. 'Jakenarrue' eta 'jake lodixe' negurako. Eskularrurik ez zen orduan. Gizon guztiak urdin jantzita eta txapelaz.

37. Itsaso txarra zegoenean denak farolari begira irten ala ez jakiteko

- **Erref:** BRM-011/023
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:33:47. **Bukatu:** 00:35:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak

Laburpena:

<p>Eguraldi txarra bazen ez ziren irteten. Eta itsasoan harrapatuz gero, portura laster "arribadan". Lau "seiñeru" egoten ziren eguraldiari begira; talai-zainarekin harremanetan egoten ziren eta eurek erabakitzen zuten itsasorako girorik zegoen ala ez. Farol berdea pizten pizten bazen irten zitekeen, eta gorriaz berriz ez.</p>

38. Haizeen izenak

- **Erref:** BRM-011/025
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:35:55. **Bukatu:** 00:37:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Ekialdeko haizeari 'iparra', kanpoko haizeari 'norta', sartaldekoari 'mendebala', hegoaldekoari 'herriko haizie'. Orduan ez zegoen irratirik eguraldiaren berri izateko. Norberak igarri behar.

39. Iretargiaz ez da ardora ikusten

- **Erref:** BRM-011/026
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:37:50. **Bukatu:** 00:38:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

Iretargi betea dagoenean ezin da bokartatara joan. Ilun egon behar du, 'ardora', zuritasuna ateratzen duelako. Iretargiaz ez da ardora ikusten.

40. Marea jaisten zenean ezin itsasora irten

- **Erref:** BRM-011/027
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:39:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak

Laburpena:

Marea jaisten zenean Bermeoko portua lehortu egiten zen eta itsasora ezin irten. Bapote guztiak hondoa jota geratzen ziren.

41. Txoriak eta izurdeak arrantzaleen lagun onenak

- **Erref:** BRM-011/028
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:39:48. **Bukatu:** 00:41:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Fauna » Natura » Itsas fauna » Ugaztunak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

Itsas txoriak seinalatzen dute non dabilen antxoa. Izurdeek azaleratzen dute, txoriek aprobeztatzen dute azaleko arrainak jateko, eta arrantzaleek txoriak ikusita jakiten dute non dabilen arraina.

42. Izurdeei jarraika ontzi guztiak

- **Erref:** BRM-011/030
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:42:45. **Bukatu:** 00:43:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Fauna » Natura » Itsas fauna » Ugaztunak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

Izurde asko zen lehen. Ontziak haiei jarraika ibiltzen ziren egun guztia, jakinda antxoa bilatuko zutela. "Manjungie" esaten zaio izurdeak arraina azalera ateratzeari.

43. Bokarta 'argira' edo 'ardorean' harrapatzen zuten gauez

- **Erref:** BRM-011/033
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:44:52. **Bukatu:** 00:46:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

Antzina karburuzko kandilak erabiltzen ziren argi egiteko. Kandelak ere bai. Geroago, dinamoaz elikatutako bonbillaz. Gerora, 'hondoko bonbillak' sortu ziren bokarta harrapatzeko. "Bokarta atrapau dogu argire" esaten zen, edota argi barik bazen, "ardorien".

44. Patroi bakoitzak bere "zimarroikerixek"

- **Erref:** BRM-011/034
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:46:44. **Bukatu:** 00:47:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

Patroi bakoitzak bere sekretuak edukitzen zituen, "zimarroikerixek".

45. Bedeinkazioak eta ur bedeinkatua zorte ona izateko

- **Erref:** BRM-011/035
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:47:26. **Bukatu:** 00:49:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak

Laburpena:

Barrezka dio santuren bat izaten zutela barkuan. Beren baporea egiterakoan, gilan domina batzuk ezarri ei zizkioten. Ur bedeinkatua ere izaten ei zuten ekaitza zenerako. Barku berriak beti bedeinkatzen ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com